

7-07-2013

fin de la ultractividad

**Ultractividad:
Se mantienen las
condiciones de tu
convenio hasta que
se sustituye por otro.**

LAN BALDINTZA DUINEN ALDE...

ultraktibatu!

POR UN TRABAJO DIGNO... ULTRACTÍVATE!

**CONVENIO DE EMPRESA
CON CONTENIDOS:
UNICA ALTERNATIVA REAL**

**EL 7 DE JULIO LA PATRONAL
PODRÁ CAMBIAR LAS
CONDICIONES DE MILES
DE TRABAJADORES/AS**

La última reforma nos coloca ante un nuevo escenario y, aunque sea difícil de creer, es un escenario aún peor para la clase trabajadora, escenario caracterizado por la precariedad y por peores garantías laborales. Todo ello nos obliga, no hay otra posibilidad, a organizar nuestra defensa.

La única forma segura de impedir que la reforma entre por la puerta de la empresa es el convenio de empresa, al que la última reforma laboral otorga prioridad aplicativa; es decir, que ningún otro convenio puede cambiar las condiciones aquí pactadas, por lo menos en determinadas materias (salario, distribución de la jornada, horas extras...). Así pues, la tarea es clara: convertir en convenios los pactos existentes y negociar convenios donde hasta ahora no ha habido negociación.

En cualquier caso, la reforma nos obliga a analizar sector por sector para buscar alternativas que den respuesta a la legislación actual, alternativas que garanticen ámbitos de lucha para conseguir convenios con contenidos que obliguen a las partes, y que sean de obligado cumplimiento y no "meras referencias".

Además, hemos de tener en cuenta que el reloj corre y el tiempo pasa. La patronal bloquea la negociación colectiva a la espera de que llegue el 7 de julio y se concrete así la desaparición de un buen número de convenios, de la mayoría de ellos. Buscan así aplicar, tal y como dice la ley, el convenio de ámbito superior vigente, si lo hubiera, o si no, el Estatuto de los Trabajadores.

Por eso, no estamos en tiempo de reloj sino de brújula, de tener claro hacia dónde vamos. Las relaciones laborales van a cambiar de manera muy importante a partir del 7 de julio. Así pues, es preciso prepararse y organizarse en las empresas para que la fecha no nos pille desprevenidos y garanticemos nuestras condiciones de trabajo. Si nos organizamos en las empresas, vamos a poder con ellos.

FILA
EUSKAL SINDIKATUA

2013-07-07

ultraktibitatearen amaiera

Ultraktibitatea:

**Konbenioaren
baldintzak mantentzen
dira beste batengatik
aldatzen denerarte.**

LAN BALDINTZA DUNEN ALDE...

ultraktibatu!

POR UN TRABAJO DIGNO... ULTRACTÍVATE!

**EDUKI ONARGARRIAK
DITUEN ENPRESA-
HITZARMENA DA
ALTERNATIBA BAKARRA**

**UZTAILAREN 7AN PATRONALAK
MILAKA LANGILEREN
BALDINTZAK ALDATZEKO
AUKERA IZANGO DU**

Azken erreformak egoera berri batean kokatu gaitu eta, sinesteko zaila izanagatik ere, langile-klasearentzat okerrera egin du: prekarietatea areagotzen ari da eta bermeak murriztu. Horrek behartu egiten gaitu gure defentsa antolatzera.

Erreforma enpresako atetik sartzea galarazteko modu bakarra enpresahitzarmena da; erreforma laboralak erabateko lehentasuna eman dio, hots, beste inongo mailako hitzarmenek ezin dituzte enpresan adostutako baldintzak aldatu, gai batzuri dagokienez, behintzat (soldatu, lanaldiaren banaketa, aparteko orduak...). Beraz, egin beharrekoa argi dago: enpresetan dauden itunak hitzarmen bihurtu eta orain arte negoziatu ez den kasuetan, hitzarmena egin.

Dena dela, erreforma honekin sektorez sektore aztertu behar da, egungo legediari erantzuteko alternatibak non dauden erabakitzeko; alternatiba horiek borrokatzeko esparruak bermatu behar dituzte, alde biek derrigor bete beharreko hitzarmenak lortze aldera, ez “erreferentzia” huts izango diren testuak.

Gainera, kontutan izan behar dugu erlojua ez dela gelditzen eta denbora aurrera doala. Patronalak negoziazio kolektiboa blokeatu egiten du, uztailaren 7a iritsi zain, horrela hitzarmen asko -zehatzago, gehienak-desagertuko direlarik. Euren asmoa, legeak dioen moduan indarrean dagoen esparru handiagoko hitzarmena aplikatzea da, eta horrelakorik ez badago, Langileen Estatutua.

Horregatik, erlojuari ez ezik iparrorratzari begiratu behar diogu, argi izan behar dugu nora goazen. Lan-harremanak erabat aldatuko dira uztailaren 7tik aurrera. Beraz, enpresetan prestatzea eta antolatzea ezinbestekoa da, egun horrek ez gaitzan ustekabeen harrapatu eta gure lan-baldintzak bermatzeko gauza izan gaitezen. Enpresetan antolatuz gero, aurre egiteko moduan izango gara.

